

# Nafarkaria

• ostirala • 2000ko otsailaren 11


**Egunkaria**

Gehigarri honetan

**Araitz-Larraun** • «Mailope» aldizkariari izaera juridikoa emanen dion elkarte sortu nahi dute

**Mikel Taberna** • «Ijito baten istorioa kontatu dut, ez ijito guztiena»

## Txaden zirujau



JON ARIZETA

Barañainen bizi den Jon Arizeta bilbotarra Afrikako Txad herrian izan zen iragan urtean, zortzi hilabetez. Moissalako ospitalean aritu zen zirujau, ebakuntzak egiten eta hango bati ebakuntzak nola egin irakasten. Arizetak apenas ezagutzen duen Txad, hara lanera joan baitzen. Haraino Beatriz, Aitor eta Idoiarekin joan zen, hau da, emaztearekin eta seme-alabekin, lankidetzaren esperientzia familiarra bizi nahi zuten eta.





Araitz ●

# Nor garen, nora goazen

‘Mailope’ aldizkariari izaera juridikoa emango dion elkarte sortu nahi dute

Duela hamar urte sortu zen *Mailope* aldizkaria, Araitz-Beteluko Euskera Batzordearen itzalean, baina egun ez du izaera juridikorik, ez du inongo erakunde argitaratzailerik. Diru arazoak konpontzeko bidea ere bada aldizkaria babestuko duen elkarte sortzea.



Araitzko Udaleko Euskara Batzordeak sortutako aldizkariak, *Mailope*-k, udaletxean du egoitza.

MAILOPE

hedatu zirenetik, bertako lagun talde batek ere hartzen du parte. Denek ere, hori bai, duten denbora libre eskainiz, eta trukean euskeraren aldeko lanak dakarren poza baino jasotzen ez dutelarik.

Elkarte bat sortzeko bidea erraza badirudi ere, adibideak behar izaten dira, eta, horretarako, Sakanaldeko Bierrik elkartearekin jarri dira harremanetan, elkarte horrek ere berea baitu beste herri aldizkari bat. Talde berri horren izena aukeratzeko lehiaketaren bat egiteko asmoa dute. Arduradunen karguak ere aukeratzeko dituzte, baina argi dute nolakoa nahi duten elkarte berria: «Orain arte *Mailope*-n ari garenoz gain, jende berria eta era desberdinetakoa bilduko lukeen taldea nahi dugu. Oraingoa baino zabalagoa, alegia. Bestelako helburuak ere izan ditzake elkarte horrek, eta horietako bat aldizkaria aurrera ateratzea izango da». Elkarte sortu arterainoko bide horren lehen urratsetako bat gaur arratsaldean egingo da: zortzietan, Lekunberriko Mitxasenea kultur etxean, bilera izango da, oraindik proiektua baino ez den hau gehiago zehazteko. Esan beharrik ez dago, zenbat eta jende gehiago, orduan eta emankorragoa izango dela bilera, eta, ondorioz, aberatsagoa, *Mailope*-ren etorkizuna.

→ Urko Aristi

AURTENGO SAN MIGEL EGUNEAN, irailaren 29an, 10 urte beteko ditu Araitz-Betelu, Larraun eta Lekunberriko herri aldizkariak, *Mailope*-k. Bide luzea, inondik ere, baina luzeagoa da, halere, aurrera begira egin beharrekoa. Dena den, aldizkarian dihardutenen lehenetasuna elkarte bat sortzea da, bestela ez baitute konponduko azkenaldian duten diru premia.

Aldizkariaren arduradun Andoni Tolosak dioenez, «herri aldizkarien artean, aurrekontu txikienetakoa duena izango du gurea, baina diru

iturriak ere oso murrizak ditugu, eta hori da gure arazoa. Publizitateari esker gero eta gehiago jasotzen badugu ere, gaur egun Gobernuak helarazten diguna da dugun diru laguntza bakarra». Kontuak sinpleak bezain garbiak dira: iaz diru sarrerak 2 milioi pezeta pasatxokoak izan ziren, eta gastuak, aldiz, 1.800.000koak. Baina kontuan hartu beharrekoa da 1999a zenbaki gorrietan hasi zutela. «Gure helburua sekulan ez da izan diru kopuru mardula biltzea, baina gastuak ordaintzeko adinako di-

rua lortzea nahikoa genuke».

Tarteka-marteka, kontzerturen bat edo ekitaldiren bat antolatzen du *Mailope*-k dirua jasotzeko. Horien artean, aipagarria da urtero Araitz-Beteluko Kultur Astearekin batera antolatzen den Mailope Lasterka izenekoa. AEK-k egiten duen Korrikaren egitura berbera du lasterketa horrek, eta milioi erdiko diru sarrera ekarri ohi du.

### Nortasun arazoa

Halere, orain elkarte sortu nahi badute, ez da diru arazoak konpontzeko soilik. Norta-

sun krisia ere badu aldizkariak, Andoni Tolosaren aburuz: «*Mailope* ez du inongo erakunde edo entitate ofizialik argitaratzen. Ofizialtasun hori falta zaigu, erantzule bat. Orain arte, adibidez, auzi batean parte hartu behar izan dugu, eta ofizialki gutaz arduratzen zenik ez zegoen». Duela hamar urte, Araitz-Beteluko Euskara Batzordearen ekimena izan zen aldizkaria karrikatzea, eta egun ere, batak bat, talde horretan dihardutenek egiten dute, boluntario, beharrezko lan guztia. Larraun-Lekunberri ibarrera

muga enea

MIKEL REPARAZ



**B**a, zera. Hantxe ginen, goizaldeko teknotaupada artean, tabako behelainoan desorientaturik. Hantxe, “zera zeratzen”, alegia. Horixe ba. Jakina baita nolakoak diren alde zaharretako ostatuak ordu batetik aurrera. Presio altuak —high pressure, ingelesez— esaten dio gure lagun batek. Eta bat-batean zorabiatu-rik zegoela esan bide zuen, edo antzeko zerbait, goizalde hartan zaila baitzen —ohi denez— deus entelegatzea. Eta, zera, komunerantz abiatu zen, kaña barra gainean utzirik, eta jakina da ordu horietan nolakoak izaten diren alde zaharretako komunitate osasun baldintzak. Ruandako errefuxiatu zelaian baino txukunagoak, behinik behin. Hantxe, burua belauan artean estali zuen, eta begirada jaso

## Giza-zera

zuenen hormari begiratu zion. Hantxe, maitasun eta gorroto graffiten artean, irain gordinen eskapitate lotsabakoan, oasi bat. Metalezko kutxa irribarratsua aurkitu zuen, txanponak sartzeko zirrikitu eta guzti, mozkor gajoari zuzen-zuzen begira. “Kai-xo”, esan zion kondoi makinak, “ala gabon esan beharko nuke?”.

Ultra-shape izeneko profilaktiko banatzailea alde batera eta bestera mugitzen zen, dantzan, leun, goxo, Ruandako errefuxiatu zelaiko estoldaren kiratsak eta azken hogeitazero lagundurik. Kondoi-makinak irribarretsua segitzen zuen. Eta mozkor gijazoa, hogeitazero truk Ultra-shape haietako bat erabiltzeko betarik izanen ez zuela jakinik, norbaitek paretan errotuladore gizez marraztu haitzuloeta-

ko pornografia ahaztu eta larrialdietarako estintorea baillitza eskegitako makinak zioena irakurri zuen, adi: “Esperientzia berri bat. Primeran egokitzen da. Kondoirik moderno eta gozoena. Aurrez emana du giza-zeraren (?) forma. Ez da irristatzen! Kontuz imitazioekin, kondoi askok esaten baitute ondo egokitzen direla, baina gero puxikak bezala puzten dira, eta ez dator ondo zeraren (!) formarekin. Labaingari berezia du, gainera, gehiago sentitzeko”.

Alde zahar eta berrietako zokorik ilunenetan zehar barreiatu dira horrelako mezuak, giza-zera zer den argitzea lizunkeriatarako duten predikadore metalikoak. Giza-zera, Elhuyar dixit, ‘penis’ dei genezake; zakila —maiuskulaz eta argi— ugaztunen kasuan. Ba, zera, horixe.



# Baztan • Eguzkilore elkartearen sorrera

Berrogeita bi emakumek osatu dute taldea, ilusio handiz, lan egiteko

Duela hiru urte elkartu ziren lehenengo aldiz, Elizondoko osasun etxean, erlaxatze ikastaro batean. Pixkanaka elkar ezagutzuz joan ziren, eta beren arazoak konpontzeko elkar laguntzea erabat onuragarria zela konturatu ziren.



Eguzkilore elkarte sortu berriko kideek norbere buruarekiko maitasuna bultzatu nahi dute. • RAKEL GOÑI

**L**ARRITASUNAREN KONTROLA, yoga eta autoestimua lantzeko taldeetan zeudela ikusi zuten elkartu beharra. Pasa den urtean, Osasun Publikoaren diru laguntza jasotzearen, elikadura osasungarriko ikastaro irekia antolatu zuten. Ikastaro horretan sortu ziren arazo eta heburuek eman zioten sendotasuna Eguzkilore elkarteari.

Hamar emakume hasi ziren lanean, eta dagoeneko 42k osatzen dute Eguzkilore. Tal-

dearen barruan lanerako lau batzorde daude: autoestimua, yoga, landare eta sendabelarrak eta barne edertasuna. Deialdi berezirik egin gabe, pixkanaka jendea elkartearen sartuz joan da, lan egiteko gogo handiarekin. Oraingoz ez dago gizonik elkartearen barruan, baina taldea irekia da.

Ustekabean, Baztanen zegoen hutsune bat betetzen hasi dira antolatu dituzten ekintzekin. "Eguzkilorek oinarrian norbere buruarekiko maitasuna bultzatu nahi du, horretarako elkar laguntzea

eta elkartasuna oinarritat izanik", zehaztu du Mertxe San Vicente Eguzkiloreko presidentek. Hasieran, taldekoen beharrak eta nahiak asetzen saiatu ziren, eta, gero, ikastaroen bitartez besteak betetzen saiatu dira.

Autolaguntzarako ikastaro iraunkorra martxan dago, baita yoga, tai-chi eta autoestimukoak ere. Dantza afroamerikarrak ikasteko aukera ere badago asteazkeneko Elizondon. Laster, gainera, Etxeko eta ibilgailuetako konponketak ikastaroa hasiko dute. Behingoz ez diete esanen au-

toaren zirrika aldatzen ez dakitenik. Maiatzean, berriz, hitzaldiak hasiko dira. Besteak beste, elikagai transgenikoak, elikagai ekologikoak eta nekazaritza ekologikoaren gaiak landuko dira. Horiek guztiak azaltzeko, Landare kooperatibako emakume nekazariak gonbidatu dituzte. Irailerako, berriz, tai-chi ikastaroa antolatu dute. Esan daiteke oinarrian Eguzkilore elkar laguntzeko

talde ireki bat dela eta helburu nagusia oraingoz antolatutako ekitaldi guztiak aurrera ateratzea dela. Eguzkilore elkartearen eta garapen pertsonala bultzatu nahi dira. Laster Emakumearen Institutuarekin ere harremanetan jarriko dira, baina oraingoz Baztango Udaleko kultur etxean dihardute. Taldean ez dute kuota-rik ordaintzen, eta dirua behar den heinean jartzen dute. Lan egiteko gogoz doana bihurtzen da kide.

→ Rakel Goñi



**herri aldizkariak**  
Edurne Elizondo

## Biharko pilotariak

Pilotaren etorkizuna aztertu du **Herria** astekariak bere azken zenbakian, Alduden, biharko pilotariak izenburuko artikularen bidez. Perkain elkarteak berriki antolatu txapelketaren kariatara: «Pilotak ez duela gehiago lehenengo arrakasta hura, hori arduratzen da eta hala dela aitortu behar dugu. Baina egia da ere urrats baliosik egiten dela hor gaindi pilotaren alde, haurrak ere ttipitik ohar ditzen pilotari, eta maita dezaten gure ondarearen lore ederrenetarik dugun joko hori».

«Zoin goresgarria ez da konparazio-

Aldudeko alde hortan Perkain elkarteak akulatzen duen saila, atseginekin aipatzen duguna egun, berrikitan jokatu finalen ondotik! Urte guziz bezala aurten ere bururatu da Perkain Batasunak antolatzen duen usaiako ezker paretako lehiaketa. Dakizuen bezala Perkain Batasuna Banka, Aldude eta Urepeleko elkarteak da eta badu orai 7 urte sortua dela xoko hortan galtzen ari zen pilotaren berruztatze. Geroztik egin du bide eta orai ohar gaitzke pilota berriz indartu dela eta gazteak berriz hasiak direla pilo-

ta plazetan eta xapelgoetan jostatzen». «Lan horren egiteko Ellande Alfaro hartua dute batasunean langile eta hola hiru herrietako eskoletan eta asteazken arratsaldetan ere ibiltzen da pilota erakasten. Perkainek bestalde ere ateraldiak antolatzen ditu helduentzat: hala nola mendiko ateraldiak, bizikletan ibilaldiak eta helduendako pilota lehiaketak. Beraz erran bezala Perkainek antolatu haurren lehiaketen finalak ederki iragan dira eta bederatzita partiden ikusteko parada izan dugu».



**ur dai aren mintzoa**

Xabier Larraburu

## Afrikako bi ipuin

### I. ipuina

Hemendik lau hilabetetara Ugandako oihanean, halabeharrez, zazpi txerri sartuko dira. Oihanean sartu eta handik bi egunetara Mozinwebe Hiri Galduaren arrastoekin egingo dute topo. Han geldituko dira bizitzera. Urtea betetzerakoan Moninguele VI. Erregearen izpiritua agertuko zaie, pantera lainotsu baten itxura harturik, eta galdera hau egingo die zutabe erori eta tenpluen aurrien artean biziko diren zazpi txerriek: «Zer dela eta etorri zarete honera?». Eta txerriek, dardar batean, erantzun hau emanen dute: «Gu kostaldeko herri txiki eta polit batean bizi ginen, etxe huts batean. Egun batean Europa urrunetik zetorren itsasontzi bat ailegatu zen portura. Bere sabeletik familia txuri bat atera eta udaletxera joan ziren. Udaletxetik zuzenean gure etxera etorri ziren paper batzuk eskuetan zituztelarik. Atean jo eta zabaldu genuenean aurpegi aurrean jarri zizkiguten paperak. Etxe hura beraiena zela frogatzen zuten. Elkarrekin bizitzeko proposamena egin genien. Beraiek txerriekin ez zutela bizi nahi esan eta kanporatu gintuzten. Herrian ez zegoen beste etxerik eta, halabeharrez, oihanean sartu behar izan genuen. Gainontzekoa badakizu». Moninguelek, hunkiturik, zera erantzun die: «Txerri maiteak, begira ezazue tenplu horren sotoan. Han aurkituko dituzue nire ondasun eta bitxi guztiak. Eraman itzazue eta izan zaitezte zoriontsu». Eta horrela ez bazan sar dadila batatan eta atera dadila herriko plazan.

### II. ipuina

Bazen behin arazo bat eta arazo El Corte Inglés non kokatu zen. Azkenean Intendentzian eraikitzea erabaki zuten. Orduan Liburutegi Nagusiko proiektua San Frantzisko plazako eskoletara eramane behar izan zuten. Eskolak orduan Teresianetara eramatea erabaki zen. Teresianek Udalarri Belosoko lursail bat eskatu zuten. Belosoko lur zati horretan Manuelito eta bere familia bizi ziren auto-karabana batean. Teresianek bere lekua eskatua zutela jakiterakoan asko kezkatu ziren. Orduan Manuelitik paper zahar batzuk atera eta zera esan zuen: «Ez kezkatu Manuelito. Nire amonak ba omen zuen etxe bat eta hemen ditut paperak». Orduan Manuelitik galdera egin zuen: «Eta non ostias dago etxe hori?». Eta Manuelitik erantzun: «Ugandan, kostaldeko herri txiki batean». ●



# Zirujaua



# Afrikaren bihotzean

Jon Arizeta medikua zortzi hilabon zen familiarekin Txadeko Moissalalitean

«Egin genuen lehenbiziko gauza Txad mapzea izan zen», erran du Jon Arizetak. Bilbotarra da, 33 urte ditu eta Barañainen 1994tik. EHUn egin zituen medikuntza ikasketak, eta gero Nafarroako ospitalean eatea. Beatriz bere emaztearekin batera hainbat herritan aritu da borondatezko lanean urtean, Txaden izan zen, Moissalako ospitalean, noduan.

Jon Arizeta (erdiko argazkian Moissalako haurrez inguratuta) bere emazte eta bi seme-alabekin joan zen Txadara.

JON ARIZETA

azaroan itzuli ziren, Beatriz eta Aitor gaixo-tu egin zirelako.

### Osasun departamentua

Moissalako inguru horretan gobernu kanpoko hainbat erakundek 134.000 biztanleko osasun departamentu bat osatu dute. Hamar osasun etxe sortu dituzte, Moissalako ospitalea horien erdian. Gaixo larriak ospitalera bidaltzen dituzte. Ospitale horretan aritu zen Jon zirujau.

Moissalako ospitalean 110 ohe dituzte eta horietako 35 kirurjiari zuzenduta daude. Bertan zegoen zirujauak postua utzi zuen. Baina Jonen lana ez zen postu hori betetzea, hori beteko zuen sendagile-

ri, Eduardi, kirurjia irakastea baizik. «Izan ere, Njamena hiriburuan bakarrik dauzkate zirujauak», esplikatu du Jonek. «Eta beste lekuetan erizainek egiten dituzte ebakuntzak. Han bazegoen jendea ikasteko gogo handiekin, baina ez zuten nor irakatsi. Orain harrotu egiten nau jakiteak gutxienez 20-25 urtetarako ziurtaturik dituztela hainbat ebakuntza».

### Itxaropen mezuak

Txad oso herri txiroa da, Jonen hitzetan. «Nik ezagutu dudun txiroena. Gerratan izan naiz, baina hau bezalakorik ez dut ikusi». Txadeko hizkuntza ofizialak arabiera eta frantsesa dira, baina herriko jendea-

ren %90ek ez dakizki. Jonek itzultzailekin egiten zuen lan. «Txadeko arazoak dira Afrikako arazo guztiak. Saharaz hegoaldeko herria da, eta gatazka etnikoa dute. Txaden ez dago gerrarik, baina tentsio handia dago. Oso baliabide gutxi dute, gainera. Eta txirotasun kulturala ere badute. Emakumea oso baztertuta dago eta ablazioa oso hedatuta dago».

Jonek dio Txad bezalako lekuez beti gauza txarrak erraten direla. «Egia da gosea pasatzen dutela, zorigaitz piloa dutela, eta emakumeak baztertuta daudela oso», dio. «Baina egia da itxaropena sor dezaketen gauza asko ere badaudela. Adibidez, 110 oheko ospitale hau 15 milioiko

aurrekontuarekin ibiltzea, eta ondo ibiltzea, harrizteko modukoa da. Diru gutxiarekin gauza handiak egin daitezke. Itxaropen mezu asko daude biztzen. Haien tragedia pixka bat arintzera joaten gara, baina baita haien alaitasunak gozatzera ere. Eta gehienetan, bueltatzen zarenean, eskaini duzuna baino askoz ere gehiago ikasi duzula pentsatzen duzu. Hori askotan esaten da eta, agian, hainbestetan esateagatik indarra galtzen du, baina egia da».

Jonek, beste lekuetan ez bezala, ez zuen harreman txarrak izan Txadeko agintariekin. Lankidetzara dirua sartzeko modu bat da, eta osasuna asko hobetu da han. «Diktadurak diktadura dira», dio Jonek. «Baina



Moissalako ospitalean dauden gaixoen senideei oinarritzko osasun eta higie-ne eskolak ematen dizkiete astero.

JON ARIZETA

## Profesionalen beharra

JON ARIZETA 1990EAN JOAN ZEN LEHEN ALDIZ HIRUGARREN MUNDURA LANERA, AMAZONAS-ERA hain zuzen ere. Gerora Ginea, Angola eta Kanboian izan da. Leku horietara guzietara lan egitera joan da Arizeta. «Niri ez zaizkit gustatzen ezer eskaini ezin duten borondate oneko pertsonak», dio Arizetak. «Lankidetzara munduan ere badira abentureroak, edo hemen lekua aurkitu ez eta beste nonbaiten euren bizitzako bidea aurkitu nahi dutenak. Baina lankidetzan profesional onak behar dira eta bere lana berdinean egiten dutenak leku batean edo bestean. Nik berdin operatzen dut Nafarroako ospitalean edo Txadeko gaixo bat. Nahiz eta han erantzukizun juridiko gutxiago izan, gaixoa pertsona bat da han eta hemen».


Arizetak dioenez, bera oso kritikoa da lankidetzarekin, eta zenbaitetan egin dituen gauza batzuekin ez dago batere ados. «Barrutik asko kritikatu behar dugu hobetzeko», erran du. «Ez da ona adibidez hamar atzerriarrek lan egitea eta hangoek ez. Baina Txadeko bezalako garapen proiektu batean atzerriar gutxi geunden gauza zehatzak egiteko, eta beste guziaz txadarrek egiten zuten. Lankidetzara mota hori oso baliokoa da. Hangoek zuten ia erantzukizun guziaz, eta gu gure lan zehatza egitera joaten ginen».

Jon Arizeta:

«Moissalako ospitaleak 110 ohe ditu, eta 15 milioiko aurrekontuarekin ondo ibiltzen da. Diru gutxiarekin gauza handiak egin daitezke biztzen»

JON MEDIKUA ETA BEATRIZ ERIZAINA ELKATREKIN joan dira beti lankidetzara proiektuetan lan egitera. Bakarrik joatea erraza zen, baina ia bere bi seme-alabekin joan behar izan zuten. Aitorrek lau urte zituen orduan eta Idoiak bi. «Asko kritikatu gaituzte bi ume txikirekin joategatik, baina beharrezko segurtasuna bazegoela ikusi genuen», adierazi du Jonek. «Medicus Mundi argi planteatu genion zer nahi genuen: gerrarik gabeko herri bat, han urtebeteko familia esperientzia izateko». 1999ko martxoan Txadeko Moissalara joan zen Jon, eta hiru hilabete geroago Beatriz bi haurrekin.

«Umeak oso pozik egon dira» adierazi du Jonek. «Umeak gurasoekin pixka bat egonez gero eta lagunen bat baldin badute pozik egoten dira. Niretzat esperientzia oso ona izan da, profesionalki batez ere. Ospitalean oso lan duina egin daiteke, Medicus Mundi urte luzez ibili delako hor». Erran bezala Moissalan urtebetez egotea espero zuten, baina





## Klasiko bitxi • arront klasiko

Joxemiel Bidador

### Baztango euskal idazleen berri laburra (IV)

**Baztango euskal idazleen berri ematen segitzen dugu laugarren saio honetan; pasa den astean gogoratu genuen Damaso Legaz (1838-1902) zenaren lanak ditugu aipagai gaurkoan, zerrendan aitzina egiteko, Amaiurrekin hagitz loturik dauden egile interesgarri biren ekarpena aipatuko dugularik.**



**L**EGAZEN EUSKAL LANIK EZAGU- nena Asteteren itzulpena izan zen, *Cristauaren icasbidea, Aita Gaspar Astetec eguina cein centzatu eta berretua aguertzen da euscarara biurtua Dre, D. Jose Oliver eta Hurtado Iru\_eco Obispo chit arguiaren aguindez bere menecoen oltzaraco* ondu zuen, Iru\_ean Jose Lordaren moldiztegian 1880an atera zena. Izenpetu gabe agertu arren, gauza jakina izan da itzulpen honen egiletasuna. Urte bereko martxoaren 21ean Iru\_eko aldizkari eklesiastikoan itzulpen honen errese\_a bibliografikoa agertu zen: «Catecismo del P. Astete traducido al idioma vascongado de orden del se\_or obispo. Es el más completo de todos los publicados hasta el día, por lo cual se recomienda a los se\_ores párrocos de la monta\_a procuren propagarlo en sus respectivas feligresías». Perez Goienak ere, bere nafar bibliografian, ez zuen arazo larririk Legazzen lana goraki laudatzeko: «Puso en su traducción sumo cuidado; sólo este trabajo basta para acreditarle de excelente conocedor de la lengua euskara por la pureza del lenguaje que en él campea».

Eliz lanak ez ezik bestelako testuen itzulketak bazituen taju-tu Legazek; ezagunena Campionek bukatu gabe utzi zuen *Los últimos navarros* alegi historikoren aldaera izan zen, 1878ko *Euskara* aldizkarian «Baztander batec» sinaturik agertu zena; Nafarroako konkistaren azkenengo egunetan giroturik, Baztango juradoak Gaztelaren kontra jo behar zutenet erabakitze-ko bozka egiten ari ziren, eta ezetz, borroka gehiagorik egin behar ez zutela onartu ostean, Zigako Martin Ulibarri honela mintzo zen: «Egun da lembicico aldia Baztandarra izateaz alquetzen naicena. Uste dut mendie ez tali dutela goibeletan bere burua gu ez icusteatic; ez tugu be\_ere, be\_ere mancha au garbituco».

**Juan Kruz Goienetxe Elorga** (1857-1925, *Elbete*) Amaiurko erretorea izan zen Juan Kruz Goienetxeri buruzko berria Mariano Izetak eskeini zigun *Diario de Navarra*ko

Nafar-Izkuntza orrian lazko martxoan ateratako artikulu labur baina jakingarri askoan. El-beten 1857an jaioa, Iru\_eko apezgaiategian sartu zen, apeztea 1891n egin zuelarik. Lehendabiziko helmuga Luzaide izan zuen, baina lba\_etatik beheitiko herrian urte gutxi eman ostean, sortetxetik hurbilagoko Amalur- rera bidali zuten, non 1925ko apirilaren 29an zendu arte erretore jardun zuen. Goienetxeren ezaugarriren bat nabarmendu beharko balitz, horixe da bertako kulturarekiko zuen jarrera baikor eta aktiboa; Amaiurko gaztetxoendako Latin Eskola ireki zuen hiriko apezteixean, eta bestaldetik ere, Nafarroako Monumentu Historikoen Batzordeak Baztanen zuen ordezkaria genuen. Horregatik ere, Batzordeak 1920an Amalurren eraiki zuen oroitariaren inguruko ekitaldi guztietan parte hartu zuen. Euskararen alde Nafarroan burutu ziren bestelako ekitaldietan ere arras nabarmengarria izan zen Goienetxeren parte-hartzea, esate baterako 1908an Auzan eta Elizondon, eta 1910ean Le-kunberrin ospatu ziren lore jokoetan, euskarazko predikua- zein hitzaldiak ematen. Euskaltzaindiak 1923ko irallean Donezteben antolatu zituen Bigar- rren Euskalegunetako Itzaldietan Martin Azpilkuetari buruzko mintzaldi luzexka ogutzi zuen, hil ostean argitaratu zena; hone- laxe eman zion hasmenta artiku- kulu eder honi: «Ludian eginta, omen, jaun zerukoak zorro bate- an mendi tontorrak artu, eta an emenka oriek emanez, lurbira mendiz apaintzeko lanari abia-

dura eman zion. Emen utzi zuen mendi bat, an ipi\_1 zuen bertze bat, aratxago irugarrena; gisa ortan zabilela mendien banaba- rratzen, etorri zen eskual erria- ren aldi, eta ara non, bat edo bertze gure alderdian eman bear zitueta ta, zorroa laxatzera- koan, an auspeztu eta zaramaz- kien guziak emen zitzaizkion gel- diti. Orra zergatik, bertze asko tokietan mendien bat edo bertze ikusten badira ere bakarrik, emen eskual erriko alde otan, parrastan eta besaganka bar- raiatuak balira lez, non nai ba- ditugu, elkarru lotuak, mendi tontor, zabal eta ederrak». Hone- taz aparte, Goienetek hainbat lan argitaratzeko utzi zizkigun; gorago aipatu izetaren artiku- luan esaten zaigunaren arabera, bederatzu ipuin idatzi zituen Goienetxek: *Artzain lapurra, Do- ministikun-doministiku, Errege zorria, Euna ta ongarría, Ikazki- na ta ertoa, Txerri usaina, Urtu- soko ermitan, Zeruko berriak* eta *Landaberroko afaltiarra*, eta gai- nera, bertsoegile naroa izan omen zen.

**Bitorio Apeztegia** (1923, *Amalur-Iurita*) «Amayurko erri zoriekoan sor- tua, nere begiak len ikusi dutena izan dira euskal-mendien aundi- tasuna, zeru zolaren baztergabe- tasuna, eguzkiaren argia, ilar- giaren amets gaia». Honela zio- sion Bitorio Apeztegia Amalurren jaio baina Iruritan hazitako apezgaiak 1923ko Bigarren Eus- kalegunetako Itzaldietan, hor- taz, aurretikago ekarri dugun Kruz Goienetxeren mintzalagun Doneztebeko ekitaldian. Apez- karrera Zaragozan ikasi ostean, Erratzun izan zen erretore den- boraldi batez, harik eta Orreaga- ko komentura joan zen arte. Hantxe topatu zuen Altzola Ge- rediagak Mikelestorenaren libu- ruaren xerka zebilela. Aingeru Irigarairerkin batera Iruritan gi- zozdu, Norbert Tauerrekin pos- ta-truke oparoa mantendu, eta Orreagako bere gelatxoan euskal liburutegi ezin ederragoa bazuen ere, ez zuen bere burua idazle- tzat ematen, eta apezgai zeneko hitzaldia dugu euskaraz argitara eman zuen idazki bakarra, ta- malez.



etorri ahalean

Patziku Perurena

ooo

### Goizuetako markesa eta toberak

**S**EMANTIKA UGARIA ETA sorburu iluna du tobe- ra hitzak, baina hemen batez ere, ezkontzak aitzakia, galarrots edo zintzarrots gisara edota tobera- muestra modura herriak antola- tzen zuen festagiro hartara mu- gatuko dizut.

Beste dantza, musika eta her- rifesta zelebre askorekin bate- ra, alizak gogor galerazi zituen toberak ere, batik bat XVII. men- de erditik aurrera. Honatx nola, 1688an Oartzunen: «Por haber reconocido los graves dafos, dis- turbios y enemistades que crea el asistir la gente moza y los hombres de las barriadas a las toberas de los novios (...) so pena de prisión o destierro contra los tales rebeldes i inobedientes» esanez ezkonberriei otordurik ez emateko «a los que corrieren a dicha función».

Debekuak debeku, gurega- naino ailegatu dira tobera hotsak. Ikus Azkueren kantute- gian, ezteikanten sarrera xora- garria. Manuel Lekuonak dio burnioletatik sortuak ote diren. Baliteke, burniola ugariko zoko honetan gorde baitira toberak bizen.

Adituek tobereri buruz esanaz gainera, Goizuetako Toberene etxe eta borda izenak darabilzkit aspaldi buruan, eta horiek aski ez, JUAN ASCENSIO GOYZUE- TA, Tobereneko Markesa. Hone- la ekarri zigun gogora Don Bi- xentek: «Goizuetako Toberene etxean jaio zen 1712an, zapzi se- nideetan zaharrena. Napolezen egin zuen bere bizimodua gehien bat, eta hantxe hil 70 urte zitue- la. Gazterik aski, anaia Juan An- gel eta biek, Madrildik jo zuten Siziliako gerrara.

«Anaia laister itzuli arren, Juan Ascensiok han segituko zuen; Karlos erregek eta haren seme Fernandok oso estimu haunditan baitzeukaten; «pro- ter singularem suam dexterita- tem, fidem et integritatem» omen- dio haren oroitariak. Gizon leia- ta eta zuzena izaki, nonbait.

«Halaxe izendatuko zuen gero Napoleso erregeak «Marques de Toberenea». Orduz geroztik bere eskuizkribu guziak «Marques de Toberenea» titulupean sinatuz eta Italian egin zuen etxe dotore- ari «Toberenea» izena ipiniz omenduko zuen Goizuetako sor- tetxeari zion zorra».

Markes titulu eta harrarria izateko, ordea, exekutoria behar, eta honatx nola jaso zuten Lei- tzako Udal Artxiboan:

«D. Juan Angel de Goizuet a por si en nombre de Don Juan Ascensio su hermano, el prime- ro del Consejo de su Magd. Sici- liana, su Thesorero de la Orden Militar de San Carlos y el dicho su hermano D. Juan Ascensio de Goizuet a Yntendente de los exercitos de su Magd. Siciliana e Yntendente general de Mari- na, hermanos de Don Juan Jph. De Goizuet a ia difunto, hijos legitimos los tres referidos de D. Martin de Goizuet a si bien difunto y Do\_a Fermina de la Cruz y Sarriguren vecinos de la villa de Goizuet a, dize que para en conserbacion de lo dicho que cada uno de ellos y demas efectos haia lugar, necesi- ta duplicadas copias autentica- cas de filiacion, limpieza y Nobleza, verificada el a\_o pasa- do de mil setezientos treinta y quatro»...

Napolesen tokatzen bazara inoiz, hantxe ikusiko duzu Chie- sa della Nunziatellako aldare ondoan, munduan bakarra den «Tobereneko Markes» haren oroitaria bere irudi eta guzi. Berrehun urte paseak dira seme goizuetarra Napolezen hil zela, baina oraindik hor etortzen omen dira Goizuetara haren ondorekoak, tobera hotsean, beren izen haundiaren sustrai bila.

Nork esan, ertaroko tobera buloso haren errauspetik atera- ko zuela Goizuetak, bere Marke- sik leialena? Ehun urte lehenago toberak galerazi zituzten jaun- txo zuri elizkoi haiek jakin be- har!

Ziria

• Motxorrosolo •

### Elkargoa

**A**SKOK BEHARREZKO JO ZUTEN, EUSKARARENA GOI MAILAKO MUNDU horretatik aski aldendurik baitzen. Zapatandindan lake- tzearena prozesu natural gisa hartu, eta horren beharrezkoa zaigun hezurmamitzearen zain, ongietorria eman zitzaion han- dikien bilkura zirudienari. Baliaturiko zenbait molde desego- kiak direlakoan, egun ere, zain gaude.



## Mikel Taberna

Idazlea

## «Ijito baten istorioa kontatut, ez ijito guztien»

Donostia Hiria saria eskuratu du berriki Mikel Taberna idazle beratarrak, Errege eguneko panpina narrazio laburrekin.

Pozik da egile nafarra, eta sariak literaturarekin duen konpromisoa sendotu duela uste du.

MIKEL TABERNA EZ DA BERRIA literaturaren munduan; idaztea afizio edo denbora-pasa da beretzat, baina argi du ez duela bazter utzi nahi. Sariak bultzada bat eman dio, eta idaztearena serioago hartzeko prest da.

■ **Pozik sariarekin?**

Bai. Sariak, batetik, segurtasuna eman dit, asmatzen ari naizela erraten dit. Hori da inportantea. Bertze aldetik, hemendik aitzinera egin behar ditudan gauzekiko konpromisoa harrarazi dit. Zure lanak aurkezteko, gainera, erreferentzia garrantzitsua da beti sari bat irabazi izana.

■ **Sarien bultzada gabe zaila da literaturaren munduan mugitzea?**

Edozer gauza eginda ere, beti pozgarria da lana ongi egiten ari zarela jakitea. Nik aspaldiko afizio edo denbora-pasa dut idaztearena, eta ez zait burutik pasatu ere egin alde batera uztea. Baina, dudarik gabe, sari bat jasotzen duzunean aurrera segitzeko indarra jasotzen duzu.

■ **Serioago hartuko duzu orain idaztearena?**

Mugatu samar nago denbora aldetik, baina, agian saria-rena hagitz hurbil dagoelako edo, neure buruari lehen baino gehiago erraten diot maizago idatzi beharko nukeela, hutsuneek ez luketela oso luzeak izan beharko.



soslai

Beran sortua da Mikel Taberna, baina aspalditik Iruñean bizi da. «Bizi, entzun eta ikusitakoak islatzen ditut nire lanetan. Sorterriko gauza franko ditut, zaharrendandik hartuak, aita edo amari entzunak. Lapurtutako gauzez beteta dugu, finean, gure zakua».

Aspaldiko afizioa du idaztea; narrazio laburra ez da ukitu duen genero bakarra; olerkigintza ere jorratzen du. Orain, ordea, Donostia Hiria saria irabazi ondoren, narrazio laburrak idazten jarraitzeko asmoa du Tabernak.

Ez du askorik aurreratu nahi, baina badu hainbat proiektu esku artean. Idazteko denbora faltan du, baina ez gogoia. Bide onean dela erakutsi du irabazitako azken sariak, eta aurrera jarraitzeko adorea eman dio.

■ **Errege eguneko panpina narrazioak ijito baten istorioa kontatzen du eta Lizarran kokatuta dago. Ijitoen errealtatea islatzea izan da zure asmoa, edo fikzio hutsa da?**

Ijitoen istorioa izanda bartzuek pentsa dezakete gatazka bat kontatuko duela, egia baita ijitoak gure gizartean ez direla egoera lasai batean bizi. Baina ez da horrelako istorio bat. Ijito baten inguruko istorio bat ezagutzen nuen nik, bizibide arrantza zuen ijito baten istorioa, eta hori izan da nire abiapuntua. Pertsonaia erakargarria irudituzitzaidan, eta hortik sortu dut ipuina. Ipuinak ijito baten istorioa kontatzen du, ez

«Dudarik gabe, herri txiki bat gara, eta gure txikitasunean sortzen dugu ahal duguna, bat edo berte nabarmentzen da, eta inguruan aritzen dira berteak, edo aritzen gara»

ijito guztiena, ez da etnia baten istorioa.

■ **Elkarrizketak narrazioan txertatzeko modua azpimarratu du epaimahaiak; ahalegin berezia egin behar izan duzu pertsonaia nagusia ijito bat dela kontuan hartuta?**

Ahalegina beti egin behar da. Elkarrizketak laguntzen du pertsonaiaren erretratua hobeki egiten; irakurlearentzat lagungarria da, eta testuari bizitasuna ematen dio. Hitz egiteko moduari dago-kionez, euskaraz idatzitako ipuina da, noski, eta Lizarran kokatuta dago. Han aspaldi samar galdu zen euskara, eta ez dut uste gaur egun euskaraz mintzatzen den ijitorik egonen denik; lehenago izan ziren. Erabili dudana euskarak nafarrera kutsua du, Bidasoaldeko hizkera da nagusi, eta pertsonaia ijitoa dela eta haiek euren hizkera dutela kontuan hartuta, tartekatu ditut euren hitz batzuk.

■ **Narrazio labur batekin ja-**

so berri duzu saria, baina ez da orain arte landu duzun genero bakarra; poesia idazten segitzen al duzu?

Bai, baina gertatzen da poemak banaka idazten ditudala. Badaukat bilduta sail bat, baina horrekin obra bat egiteko, batasuna duen zerbait egiteko, planteamendu zehatz behar da. Ideiak badituz, baina ez dut deus gauzatu. Agian sariaren eraginez, narrazioak ditut orain buruan.

■ **Nafarroan idazten duen euskal idazlea zara. Nola ikusten duzu hemengo egungo egoera?**

Iruñeko Udalak edo Atarrabian antolatzen dituzten sari-rien bidez, edo Nafarkaria bera eta Euskalerrria Irratia bezalako medioen bidez, sortzeko gogoia duen jendeak egiten ari dena erakusteko leioa duela uste dut. Ikusten dira sormena lantzeko saioak, eta hori pozgarria iruditzen zait; ez dago sekulako mugimendua, baina jende berria agertzen ari dela ikuste zerbait mugitzen ari den seinale da. Donostia Hiria sariak, halaber, nirekin batera, Pantxoa Hirigarai baigorriarra ere saritu du. Bertze aldetik, beti irudituz gait harreman gutxi dugula beste herrialdeekin, eta errua denena da. Azken finean, ez gaude hain aparte. Euskalduhen komunitatearen barrenean gaude denak, eta gehiago mugitu beharko genuke.

■ **Herri honetan bertan euskal literatura motela dela erran zuen duela gutxi Alberto Ladrón egile berriak; zer iritzi duzu zuk?**

Garena agertzen da idazten ditugun gauzetan. Bakoitzak egin behar du nahi duena, ateratzen zaiolako, eta ez horrela egin behar duelako, edo hutsune bat betetzeko. Dudarik gabe, herri txiki bat gara, eta gure txikitasunean sortzen dugu ahal duguna, bat edo berte nabarmentzen da, eta inguruan aritzen dira berteak, edo aritzen gara.

→ Edurne Elizondo



**NOSKI JAITOR**  
PALEOLITIKOAN

Zientzia  
Euskaraz

Altan  
marrazkilaria  
lapurtutako ideia  
batekila



## Nafar Kronika

Gontzal Agote

### Nafarpetotasuna

U rte luze «donostiarra», edo makurrago dena «ñoñostiarra» esanez amaitzen zituzten elkarren arteko solasaldiak nire lagun-etsai askok. Adjektibo horren bitartez ni gutxiesten bilatzen zuten; nafarra izatearen harrotasuna modu bitxi batez agerian utziz. Ez zuen askorako balio izaten itsasaldeko Nafarroa historikoa-ri alpu egitea edota Bozate aldean izan omen nituen aspaldiko arbaso gaixoak gogora ekartzea. Nire lagun-etsai askoren zat sekula ez nintzen izango «haletako» bat.

Alferrikakoa zen saiatzea, baina gipuzkoar eta nafarrek amankomunean duten dohain nabarmenetakoa nagusitu zen: burugogorkeria. Tematu nintzen *Integratio* osoa lortzen eta egun batean nire lagun-etsai guztiei harrotasun handiz erakutsi nien Iruñeko Udalean lortutako paper zurixka. Naparra, barkatu, nafarra naiz! errepikatzen nuen pozarren. Dena den, lagun-etsaiak ere ez dira horren eraz konbentzitu ahal dituzun horietakoak eta «saldua» izan da azkenaldi honetan gehienetan entzun dudana piropoa. Baina nik nirean, eta lehengo eguneko manifan begiak malkotan jarri zizkidaten eskenatoki-rik Gaizka Aranguren hasitako «Nafar gudariak gara, Nafarroa askatzeko...» hurra abesteran.

Orain, berriz, gauzak berriro korapilatu dira. Sanz presidentea, nafarren presidentea, nire presidentea beraz, Nafarroaren definizio berri-zaharra ekarri digu gogora. Nafarroa bat da eta Espainiari itsatsita dago betidanik eta betirako. Ondoan dituen beste herrialdeekin ordea ez dago itsatsita, hauekin zerikusirik izan ez delako eta, zertarako engainatu, ez du izango. Harresia, egin behar badugu, guk nafar peto-petook, gure esku eta izerdiarekin egingo dugu. Esan dezagun behin-goz: Nafarroa Nafarroa dela esatea tautologia hutsa baino ez da, argi hitz egin dezagun: Nafarroa Espainia da, legez kanpoko kontrako borrokan azken erretserba espiritualua.

Lagun batek aspaldian oparitu zidan zazpi herrialdeko mapa faltsuaren lepo-koa apurtu eta Nafarroa bakar-bakarrik daramat orain zintzilik lepoan. Hobeto sentitzen naiz, pisu gutxiagorekin konkorra sendatzeko bidean daukat, *y lo que es más importante: ya me estoy integrando.*

## gure aukerak

### KONTZERTUAK

- **Iruñea:** Ale-hop gasteiztar-rrak Donegal tabernan izanen dira, 21:00etatik aurrera.
- **Baiona:** Joxe Ripiauk kontzertua eskainiko du bihar, kiroldegian, 21:00etan.
- **Gares:** Marea Berriozarko taldeak Gares aretoan joko du bihar. Ekon arrasatearrek Gaztetxean joko dute bihar, 22:30etan.
- **Donibane-Garazi:** Bihar, gaueko hamabietatik aurrera, Pilt, Lif, Moku Zatzu eta Xitoak taldeak Jai Alai pilotalekuan ariko dira, Irulegiko Irratiaren alde.
- **Iruñea:** Gabriel Arestiren heriotzaren 25. urteurrenaren barnean, ostegunean, 19:30etan, *Ad libitum* izeneko errezitaldia eskainiko dute Josetxo Goia-Aribek (saxoa), Josetxo Azkonak (ahotsa) eta Pello Ramirezek (biolontxelo), Gotorlekuko Armen aretoan.

### HITZALDIK

- **Bera:** Gatazka gurasoen eta seme-alaben arteko harremanetan. Autoritatea eta afektibitatea izenburuko hitzaldia emanen du gaur Alberto Cascantek Gure Txokoa elkarteak, 19:00etan.

### ZINEMA

- **Iruñea:** Gaur, Golem zinetokietan, 20:00etan, Alfonso Arandaren *Anonimoa* filma pantailaratuko dute, Iñaki Elizalderen *Gernika* film laburrarekin batera.
- **Bera:** Igandean, *Ametsen lapurra* haurrentzako filma eskainiko dute Kultur Etxean, 17:00etan.

### ERAKUSKETAK

- **Barañain:** Gaur Arte kultur etxean XI. Argazki Lehaketan hautatutako koloretako lanak ikus daitezke, lanegunetan 18:30etatik 20:30etara. Eta astelehentik hilaren 25 arte, zuri-bel-tzekoak paratuko dituzte.
- **Iruñea:** Gaur da Mikel Azpillagaren margoak Txantreako Auzotegin ikusteko azkeneko eguna; 18:00etatik 21:30etara.
- **Atarrabia:** *Natura Doneja-*

*kue Bidean* erakusketa ikus daiteke euskaraz igandea bitarte jubilatuen zentroan, 17:30etatik 20:00etara.

- **Zizur Nagusia:** Igandea arte ikus daiteke Ana Casas, Marta Rueda eta Teresa Sabateren *Interiores* erakusketa, lanegunetan 19:00etatik 21:00etara, igande eta jaiegunetan 12:00etatik 14:00etara.
- **Tafalla:** Daniel Perez Flamariquereren margoak asteazke-

na arte egongo dira erakusketa aretoan.

- **Bera:** Mundu osotik bilduriko 150 musika tresnatik goiti ikus daitezke hilaren 26 arte kultur etxean, ortzegunetik igandera, 18:00etatik 20:00etara.
- **Iruñea:** Gabriel Arestiren heriotzaren 25. urteurrenaren inguruko erakusketa dago Gotorlekuko Armen aretoan, hilaren 27 arte; lanegunetan 18:00etatik 20:30etara eta jaiegunetan 12:00etatik 14:00etara.



## Geurea da!

Kopa ez da erregearena, geurea da, dio pankartak. Eta Gorritxo-k sinestu egin du. Errepublikazalea da bera, baina sinestu nahi du. Atzoko partidaren Osasunak Barçaren aurka zer egin zuen ez daki oraindik. egunkariaren kiroltako orrialdeetaraino egin beharko du salto horretarako. Baina bortz axola zaio hori. Denborarik gabeko espazioan bizi da Gorritxo. Atzoko oraina biharko iragana da Gorritxo-rendako. Izan ere, buru handi horren barneko beroak Sartre eta ardo gorriarekiko zaletasuna piztu dio. «Kopa geurea da», erran du. Gorritxo-ri neurriko traje pertsonalizatuak egiten dizkiote, gure burugogorke-riak txapel handia merezi baitu.